



# BARATZE BASERRI ESKOLA DERRIGORREZKO HEZKUNTZA



# DERRIGORREZKO HEZKUNTZA – HEZIKETA PROIEKTUA

---

**1.- Aurkezpena**

**2.- Curriculumarekiko lotura**

**3.- Helburuak eta konpetentziak**

**4.- Metodologia**

**5.- Egonaldiaren antolaketa**

**5.1. Eguneroko ordutegia**

**5.2. Egonaldiaren iraupena eta tailerrak**

**5.3.- Irakasleen papera**

**6.-Zikloen araberako egokitzapena**

**7.- Tailerrak**

**8.- Baliabideak**

**9.- Ondorioak**

## 1. AURKEZPENA

Baratze Baserri-Eskola Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako **hezkuntza-esperientzia integrala** da, ikaskuntza bizipenetik, naturarekiko harreman zuzena eta elkarbizitza oinarri hartuta garatzen dena. Proiektu honek **eskolako curriculumarekin lotura** zuzena duen egonaldia proposatzen du, **ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa modu esanguratsuan sustatzeko**.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban kokatuta, Baratze Baserri-Eskolak aukera paregabea eskaintzen die ikasleei ikaskuntza **testuinguru erreal** batean garatzeko. Ingurune naturalak, baserriaren eguneroko jardunak eta talde-bizitzak aukera ematen dute ikasleek ezagutzak modu aktiboan eraikitzeko, **emozioak bizitzeko eta balioetan** hezteko.

Proiektu pedagogiko hau ikaskuntza esperientzialaren, **ikaskuntza esanguratsuaren** printzipioetan oinarritzen da. Ikaslea da ikaskuntza-prozesuaren erdigunea: behatzen du, esperimendatzen du, galdetzen du, sortzen du eta besteekin batera ikasten du.

Baratzen egiten den egonaldiak eskolan lantzen diren edukiak aberastu eta osatzen ditu, ikasleen **autonomia, ardura, elkarlana, komunikazioa eta ingurumenarekiko errespetua** indartuz. Esperientzia honek ikasleen garapen osoa bultzatzen du, ikaskuntza akademikoa eta hazkunde pertsonala uztartuz.

## 2. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIO PEDAGOGIKOA ETA CURRICULUMAREKIN LOTURA

Baratze Baserri-Eskolako Lehen Hezkuntzako proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum ofizialarekin 77/2023 Dekretuarekin eta (LOMLOE) erabat lerrokatuta dago. Baita Elikadura, Landa garapena, Nekazaritza eta Arrantza politikekin lotuta dago. Hori dela eta, ikasleak modu integratuan funtsezko konpetentziak garatzea du helburu.

Proiektuak curriculumak proposatzen duen ikuspegi konpetentziala bere egiten du, ikaskuntza egoera erreal eta esanguratsuen bidez. Ikasleek konpetentziak ez dituzte modu isolatuan garatzen, baizik eta testuinguru funtzionaletan, arazoak konponduz, erabakiak hartuz eta taldean jardunez.

Baratzen egiten diren jarduera eta tailerrek Lehen Hezkuntzako arlo nagusiak lantzen dituzte:

- Hizkuntza-arloak: Euskera
- Matematika
- Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza
- Arte Hezkuntza
- Heziketa Fisikoa
- Balio zibiko eta etikoak

Ikaskuntza hauek guztiak ingurumen-hezkuntzaren, garapen jasangarriaren, **inklusioaren eta ikasleen ongizate emozionalaren** ikuspegitik lantzen dira, hezkuntza integral eta konpetentzial baten alde eginez.

## 3. HELBURU OROKORRAK ETA FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

Baratze Baserri-Eskolako Lehen Hezkuntzako egonaldien helburua ikasleen garapen integrala sustatzea da, curriculum ofizialean jasotzen diren **funtsezko konpetentziak modu praktiko, bizipenetik eta esanguratsuan garatuz.**

Proiektuak ikasleen jakin-minetik, esperientziazatik eta parte-hartze aktibotik abiatzen den ikaskuntza proposatzen du, ingurune natural eta sozial erreal batean kokatuta.

## **Helburu orokorrak**

Baratze Baserri-Eskolan egindako egonaldien bidez, ikasleek honako helburu hauek lortzea espero da:

- **Funtsezko kompetentziak** garatzea, ikaskuntza-esperientzia esanguratsu eta errealean bidez, eguneroko egoeretan parte hartuz eta erronka egokituak biziz, ikasleek eskuratutako ezagutzak testuinguru errealetara transferitzeko eta ikaskuntza autonomia sustatzeko.
- **Autonomia pertsonala** eta erantzukizun indibiduala lantzea, eguneroko bizitzako zereginetan modu aktiboan eta gidatuan parte hartuz, bakoitzaren erritmoak eta gaitasunak errespetatuta, ikasleen autoestimua, ekimena eta norberaren buruarenganako konfiantza indartzeko.
- **Elkarbizitza positiboa**, lankidetzeta eta errespetua garatzea, talde-laneko egoeretan arituz, arau adostuak onartuz eta rol desberdinak txandakaturik, harreman osasuntsuak eraikitzeko eta komunitatean modu arduratsuan bizitzen ikasteko.
- **Komunikazio-gaitasuna** indartzea, euskara ardatz hartuta eta, egonaldiaren ezaugarrien arabera, gaztelania eta/edo ingelesa egoera funtzionalean erabiliz, ikasleek beren ideiak, emozioak eta beharrak modu eraginkorrean adierazteko eta hizkuntza-aniztasuna baloratzeko.
- **Pentsamendu logiko-matematikoa** eta zientifikoa garatzea, behaketa, manipulazioa, esperimentazioa eta eguneroko arazo errealean ebazpena oinarri hartuta, ikasleek ingurunea ulertu, galderak formulatu eta pentsamendu kritikoa garatzeko.
- **Natura-ingurunearen ezagutza** eta errespetua sustatzea, baserri-inguruneako elementuak zuzenean esperimentatuz eta ingurumenarekiko jarduera arduratsuek eginez, ikasleek jasangarritasunarekin eta ingurumenaren zaintzarekin konpromiso aktiboa har dezaten.
- **Sormena, adierazpen artistikoa eta gorputz-adierazpena** bultzatzea, hizkuntza artistiko eta adierazpen-baliabide anitz erabiliz, proposamen ireki eta inklusiboen bidez, ikasleek beren nortasuna adierazi, sentsibiltatea garatu eta komunikazio-modu ezberdinak baloratzeko.

- **Ongizate emozionala** eta norberaren ezagutza lantzea, bizipenetan oinarritutako jardueren bidez, emozioak identifikatu, adierazi eta modu egokian kudeatzeko espazio seguruak sortuz, ikasleen oreka emozionala, enpatia eta ongizate pertsonala indartzeko.

### **Funtsezko kompetentziak**

Baratze Baserri-Eskolako proiektuak honako oinarritzko kompetentzia hauek lantzen ditu modu integratuan:

#### **Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia**

Ahozko adierazpena, entzute aktiboa, hiztegiaren aberastasuna eta komunikazio egoera errealetan hizkuntzaren erabilera lantzen dira.

#### **Kompetentzia eleaniztuna**

Euskara komunikazio-hizkuntza nagusi gisa erabiliz, eta egonaldiaren arabera, gaztelania eta/edo ingelesa txertatuz.

#### **Matematikarako eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentzia (STEM)**

Neurriak, kalkuluak, behaketa zientifikoa, esperimentazioa eta problemak ebatzea lantzen dira.

#### **Kompetentzia digitala**

Zeharka lantzen da, informazioa behatuz, interpretatuz eta taldean erabakiak hartuz, erabilera arduratsua sustatuz.

#### **Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa**

Autonomia, autoestimua, emozioen kudeaketa, lankidetzaren eta ikaskuntza-prozesuaren kontzientzia garatzen dira.

#### **Herritartasunerako kompetentzia**

Elkarbizitzarako arauak, errespetua, ardura partekatua eta gizartearekiko konpromisoa lantzen dira.

#### **Ekintzailtza-kompetentzia**

Ekimen pertsonala, sormena, erabakiak hartzea eta arazoei aurre egitea sustatzen dira.

#### **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia**

Adierazpen artistikoa, sormena eta kultura-balioekiko hurbilketa lantzen dira.

#### 4. METODOLOGIA ETA IKAS-EGOERAK

Baratze Baserri-Eskolako Lehen Hezkuntzako proiektua ikuspegi konpetentzialetik diseinatuta dago, ikasleen ikaskuntza-prozesua egoera errealean eta esperientzia esanguratsuetan oinarrituz. Metodologiaren ardatza ikasleen parte-hartze aktiboa da, haien ezagutzak, interesak eta erritmoak errespetatuz.

##### **Printzipio metodologikoak**

Proiektuaren metodologia honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Ikaskuntza esanguratsua:** ikasleek aurretiko ezagutzekin lotzen dituzte bizitzen dituzten esperientziak, ikaskuntza funtzionala eta iraunkorra lortuz.
- **Ikaslearen protagonismoa:** ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren erdigunean jartzen da; behatzen du, esperimentatzen du, galdetzen du eta erabakiak hartzen ditu.
- **Ikaskuntza esperientziala eta manipulaziozkoa:** jarduera guztiak esperimentazio zuzenean, manipulazioan eta ekintzan oinarritzen dira.
- **Ikaskuntza kooperatiboa:** talde txikietan lan eginez, elkarlana, errespetua eta erantzukizun partekatua sustatzen dira.
- **Ikaskuntza inklusiboa:** ikasle guztien parte-hartzea eta arrakasta bermatzeko, jarduerak malguak eta egokigarriak dira, IDU printzipioak jarraituz.
- **Ikaskuntza emozionala:** emozioen identifikazioa, adierazpena eta kudeaketa zeharka lantzen dira jarduera guztietan.
- **Ingurune naturalaren** erabilera didaktikoa: natura ikaskuntzarako baliabide nagusitzat hartzen da.

##### **Ikas-egoerak**

77/2023 Dekretuak eta LOMLOEn oinarrituz, Baratzeko programazioa ikas-egoeretan antolatuta dago. Ikas-egoera hauek honako ezaugarriak dituzte:

- Testuinguru erreal eta esanguratsuan kokatuta daude (baserria, natura, talde-bizitza).
- Erronka edo galdera gidari batetik abiatzen dira.
- Arlo eta konpetentzia anitzak modu integratuan lantzen dituzte.
- Ikasleen parte-hartze aktiboa eta erabakiak hartzea eskatzen dute.
- Esperimentazioa, behaketa eta hausnarketa uztartzen dituzte.

- Tailer bakoitza ikas egoera bat da berez, non ikasleek ezagutza, trebetasun eta jarrerak aldi berean garatzen dituzten.

## **Ebaluazioaren ikuspegia**

Baratze Baserri-Eskolan egiten den ebaluazioa hezitzailea, jarraitua eta formatiboa da. Helburua ez da ikasleen emaitzak neurtzea, baizik eta ikaskuntza-prozesua laguntzea eta hobetzea.

Ebaluazioaren ezaugarriak:

- Behaketa zuzena jardueren garapenean.
- Ikasleen parte-hartzea, jarrera eta autonomia kontuan hartzea.
- Autoebaluazioa eta hausnarketa sustatzea, adinaren arabera.
- Irakasleekiko koordinazioa, eskolako programazioarekin lotura bermatzeko.

Ebaluazio honek ikasleen aurrerapen pertsonala balioesten du, bakoitzaren erritmoa eta gaitasunak errespetatuz.

## **Aniztasunari erantzuna eta inklusioa**

Proiektuak inklusioaren printzipioa bermatzen du Ikaskuntza Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipioak aplikatuz. Horrela, ikasle guztiek ikaskuntza-esperientzia esanguratsua bizitzeko aukera daukatela bermatuz.

Horretarako:

- Jarduerak mailakatuak eta moldagarriak dira, simple eta zehatzetik konplexu eta abstraktuetara aurkeztuz.
- Informazioa modu ezberdinetan aurkezten da: ahoz, piktogramak erabiliz, bideoz...
- Parte-hartze modu desberdinak eskaintzen dira.
- Talde-lana eta elkar-laguntza sustatzen dira.
- Ikasleen behar emozional eta sozialak kontuan hartzen dira.

## **5.- EGONALDIAREN ANTOLAKETA ETA ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA**

Baratze Baserri-Eskolako egonaldia esperientzia integrala da, ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa uztartzen dituen. Antolaketa ikasleen adinari, heldutasun-mailari eta curriculumeko eskakizunei egokituta dago, zikloen arabeko progresioa bermatuz.

## **Egonaldiaren egitura orokorra**

Egonaldia egun osoko esperientzia hezitzaile gisa ulertzen da, non ikaskuntza ez den tailerretan soilik gertatzen, baizik eta eguneroko bizitzako une guztietan: elkarbizitzan, astialdian, jantokian, atsedenaldietan eta gaueko jardueretan.

Eguneroko antolaketan honako hauek txandakatzen dira:

- Ikaskuntza-egoera gisa planteatutako tailerrak
- Astialdi gidatua, elkarbizitza eta harreman sozialak lantzeko
- Bizikidetzak-uneak, autonomia eta ardura pertsonala sustatzeko
- Gaueko jarduerak, adierazpen emozionala eta kulturala lantzeko

Antolaketa honek ikasleen ongizatea, segurtasuna eta ikaskuntza bermatzen ditu.

## **Taldean antolaketa**

Ikasleak talde txikietan antolatzen dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Adina eta zikloa
- Harremanak eta elkarbizitza
- Parte-hartze orekatua

Talde txikiek aukera ematen dute:

- Parte-hartze aktiboa bermatzeko
- Arreta pertsonalizatuagoa eskaintzeko
- Lankidetzak eta elkar-laguntza sustatzeko

## 5.1.- Eguneroko ordutegia

8.30	Denok gora!
9.00 - 9.30	Gosaria
9.30 - 11.00	1. tailerra
	Astialdia
11.00 - 11.30	
11.30 - 13.00	2. tailerra
13.00 - 14.00	Bazkaria
14.00 - 15.00	Astialdia
15.00 - 16.30	3. tailerra
16.30 - 17.00	Askaria
17.00 - 18.30	4. tailerra
18.30 - 19.00	Astialdia
19.00 - 20.00	Afaria
20.00 - 21.00	Gaubela
21.00 - 21.30	Kola-kao beroa
21.30	Ohera!

## Antolaketa

---

Umeak Baratzera heldu bezain laster, bi batzar egiten ditugu: bat umeekin eta beste bat irakasleekin.

Hurrekin izaten dugun batzarrean ondorengoa egiten da:

- Nortzuk garen, zer egingo dugun eta arauen bat azaltzen diegu.
- Lan taldeak egiten ditugu.

### 5.2.- EGONALDIAREN IRAUPENA eta TAILERRAK

		Sarrera	Irteera	Tailerrak
BI EGUNEKO EGONALDIA		10.30etan	15.00etan	5 tailer (ordu t'erdikoak)
ASTE ERDIKO EGONALDIA	Astelehena-asteazkena	Astelehena 10.30etan	Asteazkena 14.30etan	8 tailer (ordu t'erdikoak)
	Asteazkena-ostirala	Asteazkena 15.00etan	Ostirala 17.00etan	8 tailer (ordu t'erdikoak)
LAU EGUNEKO EGONALDIA		10.30etan	15.etan	12 tailer (ordu t'erdikoak)
ASTEKO EGONALDIA		Astelehena 10.30etan	Ostirala 15.00etan	16 tailer (ordu t'erdikoak)

## EGONALDIAREN ANTOLAKETA

Egonaldia programatzeko orduan klimatologia kontutan izan behar dugu tailerrak modu batean edo bestean bideratzeko. Irakaslegoak nahi izanez gero eskakizunen bat egin dezake Baratzen egindako ekintzak eskolakoekin erlazionatzeko edota egokitzeko.

Baserri eskolako ekintza eta tailer ezberdinak era egokian egin ahal izateko haurrak talde txikietan banatzen dira.

1., 2., 3. MAILA	Tailerrak	Gauetan
BI EGUNEKO EGONALDIA	5 tailer (ordu t'erdikoak)  1. Korta 2. Sukaldea 3. Zaldia 4. Eskulangintza 5. Baratza	Gaubela
ASTE ERDIKO EGONALDIA	8 tailer (ordu t'erdikoak)  1. Korta 1 2. Korta-2 3. sukaldea 4. zaldia 5. eskulangintza 6. Ibilbidea 7. Loragintza 8. Baratza	Gaubela

Oraingoan, ikasleen heldutasun arabera, ordu eta erdiko bi saio emango dizkiegu, Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia lantzeko. Izan ere, aurreko etapatan

hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatzeari ematen genion garrantzia. Honek, haien arrazanamenduaren eta kognizioaren garapenean daukan ondorio hain positiboagatik.

4., 5., 6. MAILA	Tailerrak	Gauean	
BI EGUNEKO EGONALDIA	5 tailer (ordu t'erdikoak)	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Korta</li> <li>2. Sukaldea</li> <li>3. Zaldia</li> <li>4. Eskulangintza</li> <li>5. Baratza</li> </ol>	Gaubela
ASTE ERDIKO EGONALDIA	8 tailer (ordu t'erdikoak)	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Korta</li> <li>2. Sukaldea</li> <li>3. Zaldia</li> <li>4. Zur lanketa</li> <li>5. Zur lanketa 2</li> <li>6. Ibilbidea</li> <li>7. Lehen sektorea-Km 0</li> <li>8. Baratza</li> </ol>	Gaubela
LAU EGUNEKO EGONALDIA	12 tailer (ordu t'erdikoak)	<p>Baserriko tailerrak egiteaz gain aukera izango dute Baratzetik ateratzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irteera kulturalak</li> <li>- Multiabentura</li> </ul>	Gaubela
ASTEKO EGONALDIA	16 tailer (ordu t'erdikoak)	<p>Baserriko tailerrak egiteaz gain aukera izango dute Baratzetik ateratzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irteera kulturalak</li> <li>• Multiabentura</li> </ul>	Gaubela

Baratzetik kanpo ekintzaren bat egin nahi bada, aurretiaz abisatu beharko da lekua erreserbatzeko (museoak, Santimamiñe, Bird Center, ur ekintzak...). Prezioak aldatu daitezkeela kontuan izan.

### **5.3.- Irakaslearen papera**

Baratzen egingo den egonaldia eskolako programazioarekin hertsirik lotuta dagoen esperientzia bat izan dadin nahi dugu.

Irakasleen funtzio nagusia haurren astialdia eta gaueko zainketa da, hala ere, beti edukiko dute gure laguntza.

Haurrekin etortzen diren irakasleek ondorengo momentuetan egon behar dute haurrekin:

JANTOKIA (Gosaria- bazkaria- afaria)

GOIZEKO ASTIALDIA (11:00 – 11:30)

ASKARIAREN ASTIALDIA (16:30-17:00)

Baratzeko irakaslegoak eguerdiko eta afal osteko astialdia zainduko du, umeekin datozen irakasleek lasai jan dezaten irakasleen gelan.

Une guztietan, ager daitekeen edozein arazo bati aurre egiteko, Baserri-Eskolako arduradun bat egongo da., hala ere, gauez irakasleak izango dira haurren azken arduradunak.

Ekintzak burutzen diren bitartean, irakasleek edozein momentuan, bideoa grabatzeko, argazkiak ateratzeko edo tailerrak nola burutzen diren ikusteko aukera daukate.

## 6.- Zikloen araberako egokitzapena

Proiektuaren diseinuak zikloen araberako egokitzapena aurreikusten du, ikasleen garapen ebolutiboa eta curriculumaren progresioa errespetatuz.

### ◆ 1. eta 2. mailak (1. zikloa)

Ziklo honetan lehentasuna ematen zaio:

- Autonomiaren hastapenari
- Oinarrizko ohituren garapenari
- Esperimentazioari eta jolasean oinarritutako ikaskuntzari

Ezaugarriak:

- Jarduera laburragoak eta erritmo lasaiagoa
- Manipulazioa, behaketa eta esperimentazioa
- Hizkuntzaren erabilera naturala eta ahozkoa
- Emozioen adierazpena eta segurtasun emozionala
- Helburua da ikasleek ingurunea ezagutzea, konfiantza hartzea eta ikasteko motibazioa garatzea.

### ◆ 3. eta 4. mailak (2. zikloa)

Ziklo honetan ikaskuntza-prozesua sakontzen da, honako hauek landuz:

- Autonomia handiagoa
- Pentsamendu logikoaren eta zientifikoaren garapena
- Talde-lanaren sendotzea

Ezaugarriak:

- Erronka kognitibo handiagoak
- Hipotesiak egitea eta ondorioak ateratzea
- Ahozko azalpenak eta ideien trukea
- Erantzukizun partekatua talde-lanean
- Ikasleek euren ikaskuntza-prozesuaz jabetzen hasten dira.

### ◆ 5. eta 6. mailak (3. zikloa)

Ziklo honetan ikasleen heldutasun-maila handiagoari erantzuten zaio, honako ardatz hauek indartuz:

- Autonomia pertsonala eta soziala
- Pentsamendu kritikoa eta hausnarketa
- Ingurumenarekiko konpromisoa

Ezaugarriak:

- Proposamen irekiagoak eta konplexuagoak
- Erabakiak hartzea eta ardura pertsonala
- Taldearen antolaketan parte-hartze aktiboa
- Ikaskuntza sozialki esanguratsua
- Helburua ikasleak egoera errealetan modu arduratsuan jarduteko prestatzea da.

## **7. - TAILERRAK: LOTURA ZUZENA ARLOEKIN, KOMPETENTZIEKIN ETA JAKINTZEKIN**

Baratze Baserri-Eskolako tailerrak ikaskuntza-egoera gisa diseinatuta daude, Lehen Hezkuntzako curriculumarekin zuzenean lotuta daudelarik. Tailer bakoitzean arlo desberdinak, kompetentziak eta jakintza-multzoak modu integratuan lantzen dira, ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala bermatuz.

Tailerrek ikasleen esperientzia zuzena, parte-hartze aktiboa eta hausnarketa uztartzen dituzte, adinaren eta zikloaren araberako egokitzapenarekin.

## 7.1. SUKALDEA

SUKALDEA			
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Ingurune</li> </ul>		<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurriak eta magnitudeak</li> <li>• Proporzioak eta kantitateak</li> <li>• Aldaketak eta prozesuak</li> <li>• Datuen interpretazioa</li> </ul>	
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> <p>Sukaldeko tailerrean ikasleek errezeta errealak prestatzen dituzte, esperimentazioaren bidez pentsamendu logiko-matematikoa garatuz. Neurketak, kalkuluak eta proporzioak aplikatzen dituzte, elikagaien eraldaketa-prozesuak aztertzen dituzten bitartean.</p> <p>Ikasleek problemak ebazten dituzte egoera errealean, taldean lan eginez eta erabakiak hartuz, autonomia eta ardura sustatuz.</p>			
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA			
Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
Matematika			
HKK STEM KD KPSII EK KAKK	HKK2 STEM1, STEM2, STEM4 KD1, KD2 KPSII5 EK1, EK3 KAKK4	1	1.1.
HKK STEM KPSII EK KAKK	HKK1, HKK3 STEM1, STEM2 KPSII5 EK2, EK3 KAKK4	2	2.1. 2.2.

HKK	HKK1, HKK2	3	3.1
STEM	STEM1, STEM2		
KD	KD3, KD5		
KPSII	KPSII5		
KE	KE1, KE2, KE3		
STEM	STEM1, STEM2, STEM3, STEM6	5	5.1
KD	KD3, KD5		5.2
KPSII	KPSII5		
HK	HK4		
KAKK	KAKK1, KAKK2, KAKK4		
HKK	HKK1, HKK2, HKK5	6	6.2
STEM	STEM1, STEM2, STEM4		
KD	KD1, KD3, KD5		
KAKK	KAKK4		
<b>Ingurune</b>			
HKK	HKK1, HKK2, HKK3, HKK5	6	6.1.
KE	KE1, KE2, KE3		6.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM5		
KD	KD2, KD3, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3, HK4		
EK	EK1, EK2, EK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK, HKK2, HKK3	7	7.1
KE	KE1, KE2		
STEM	STEM4		

KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1		

#### ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA

**1. zikloa:** Manipulazio zuzena, neurri bisualak (edalonziak, koilarak), jarraibide gidatuak.

**2. zikloa:** Proportzio sinpleak, kantitate doikuntzak, talde-erabakiak.

**3. zikloa:** Kalkulu autonomoak, errezetaren egokitzapena, elikadura burujabetzaren inguruko hausnarketa.

#### TAILERRAREN DESKRIBAPENA

**INFORMAZIO OROKORRA:** Tailer honetan baserrian lorturiko produktuen eraldaketa aztertu eta nolakoa den ikustekoeta aurrera eramateko aukera izango dute. Guzti hau adinari egokitutako errezeta ezagun eta errezen bidez lortuko da. Bide batez, neurriak, proportzioak, lantitatea, tenperatura, sukaldeko tresnen erabilera eta haien izenak ere landuko dituzte.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Tailerrean bertan beharrezko tresna, produktu, ea erabiltzeko prest daude.

**TAILERRA:** 90 minutu tailer bat izaten da. Taldea jolastokian elkartu eta egingo duguna azaldu. Gero tailerrera abiatzen gara. Bertan, tokia hartuta lanari ekingo diogu. Orduan egingo duguna aurkestiko diegu:

- Errezeta eta erabiliko ditugun produktuak
- Pausuz pausu errezeta egiten hasiko gara. Behar diren tresnak erakutsi eta nola erabiltzen diren azaldu.
- Tartean beharrezkoak diren azalpenak eskeiniko dizkiegu, bai baserriko produktuen erabilerari, jatorriari, Historian zeharzteko aldaketei buruzkoak, elikadura, burujabetzari buruzkoak ere.
- Tailerraren azken zatian, tresnak jaso eta mahaiak garbitu ondoren, etxera eramateko errezeta betetzen dute. Horrela haiek pausuz pausu ekoizteko aukera izango dute.

**OHARRA:** Ziklo bakoitzean azalpenak sakontzen dira eta baita errezeta bakoitza ekoizteko prozedurak ere. Nagusiagoak egiten diren heinean, haien autonomian, neurketan, kalkuluetan eta manipulazioan oso garrantzi handia ematen zaio.

## 7.2. KORTA - ANIMALIAK

KORTA			
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskera</li> <li>Ingurune</li> </ul>		<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ahozko adierazpena eta entzute aktiboa</li> <li>Hiztegia eta ahozko diskurtsoa</li> <li>Elkarrizketa eta azalpena</li> </ul>	
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> <p>Korta animalien inguruan antolatutako hizkuntza-tailerrak ahozko komunikazioa du ardatz. Ikasleek behatzen dutena deskribatzen dute, istorioak sortzen dituzte eta esperientziak partekatzen dituzte.</p> <p>Tailer honek hizkuntza testuinguru natural eta motibatzailean erabiltzea ahalbidetzen du, komunikazioa funtzionala eta esanguratsua bihurtuz.</p>			
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA			
Funtsezko konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
Euskera			
HKK	HKK1, HKK5	1	1.2
KE	KE2, KE3		1.3
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1, KAKK3		
HKK	HKK2	2	2.1
KE	KE2		2.2
STEM	STEM4		
KD	KD1, KD3		
KPSII	KPSII3		
HK	HK3		
HKK	HKK1, HKK5	3	3.2
KE	KE2		

STEM	STEM4		
KD	KD2, KD3		
KPSII	KPSII1		
HK	HK2, HK3		
EK	EK1		

**Ingurune**

HKK	HKK1, HKK3	5	5.1.
KE	KE1, KE2		5.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5		5.4.
KD	KD1		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK4		
EK	EK1		
KAKK	KAKK1, KAKK2		

**Balioak (LH6)**

HKK	HKK2, HKK5	3	3.1.
EK	KE1, KE2		3.2.
STEM	STEM5		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII2		
HK	HK2, HK3, HK4		
EK	EK1		

**ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA**

**1. zikloa:** Animalienganako hurbilpenaz gain, haien izenak, arrak edo emeak diren eta animalia jakin bat arra edo emea denean nola izendatzen den. Baserritarrok nola zaintzen ditugun (elikadura,...) eta zer eskeintzen diguten. Ikuspenari garrantzi handia ematen zaio animalien atalak ezberdintzeko, berezitasunak antzemateko, horrela haienganako jakinmina sorraraziz.

**2. zikloa:** Aurreko zikloan aztertzen denaz aparte ondoren aipatzen direnak ere lantzen dira: Animalien sailkapena (belarjaleak, haragijaleak, orojaleak; Ugaztunak, Obiparoak; Hegaztiak, Ur hegaztiak; Hausnarkariak, marrazkariak..)

Baita animalia bakoitzatik baserritarrok zer lortzen dugun.

**3. zikloa:** Aurreko zikloetan lantzen diren puntu horietan sakontzen dugu. Adibidez, Ugaztuna bada, zenbat denborako hernaldia duen emeak aztertzen da; zenbat kuma jaiotzen diren eta haien zainketa eta kontrola nola egin behar den. Baserrian iraganean animalien behar izana aipatzen da eta gaur egun gertatzen denarekin konparatzeko.

#### TAILERRAREN DESKRIBAPENA

**INFORMAZIO OROKORRA:** Tailer honetan gure helburu nagusienetarikoa bat ikasleak baserriko animalien hurbilpen lasai baten bidez esperientzia aberasgarri bat lortzea da. Ekintza honetan animalien ezaugarriak, sailkapenak, haiengandik lorturiko produktuak, baseeriko bizimoduan iraganean izandako eragina eta laguntza: eskeini behar zaien elikadura, zainketa e.a. aztertzen dira. Guzti hau ikasleen adinari egokituta.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Lan egiteko oinetakoak (katiuskak edo antzekoak), berokia edo eurirako zira, eta txapela edo bisera eguzkirako.

**TAILERRA:** Tailerrak 90 minutu iraupena du. Taldea gune lasai baten elkartu eta nortzuk garen esan ondoren egingo duguna azalduko da. Ondoren oinetakoz aldatzen gara. Beharrezkoa guztia hartuta, baserriko animalien abiatzen gara. Giro lasai eta seguru bat lortu eta gero, "gure lagunak" aurkezpena egiten da: zer diren, adina, emeak ala arrak diren, zer jaten duten, non bizi diren, eta nola, zer eskaintzen diguten baserritarroi,... Beti ere, azalpen hau taldearen adinari, berezitasunei, jakinminari egokitzen da.

Orduan animaliei jaten eman ahal diegu, laztan egin, orraztu, ikutu, hartu,... Animalia bakoitzarekin zerbait egiten dugu, baina lehen esan bezala ikasleen adina eta gaitasunei egokituta.

Ekintzaren bukaera heltzean dagoenean agurraren momentua dator. Nola egon diren galdetzen zaie, zein den gehien gustatu zaien „lagun berria“. Momentu honetan, jolastokira itzultzen direnean oinetakoz aldatzeko eta eskuak garbitzeko eskatzen zaie animaliekin ibili bait dira.

**OHARRA:** Egonaldiaren arabera batzuetan korta tailer bi saiotan egiten da, hórrela, ikasleek sakonago eta hobeto ezagutuko dituzte animaliak.

### 7.3. BARATZA

BARATZA			
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurune</li> <li>• Baloreak (LH6)</li> </ul>		<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Landareen bizi-zikloa</li> <li>• Lankidetzeta eta ardura partekatua</li> <li>• Ingurumenaren zaintza</li> </ul>	
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> <p>Baratzako tailerrean ikasleek landareen hazkundera eta zaintza lantzen dute, talde-lanean oinarrituta. Zereginak banatu, erabakiak hartu eta emaitzen ardura partekatzen dute.</p> <p>Ikaskuntza honen bidez, naturarekiko errespetua eta elkarbizitzarako balioak garatzen dira.</p>			
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA			
Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
Ingurune			
HKK	HKK1, HKK2, HKK3, HKK5	6	6.1.
KE	KE1, KE2, KE3		6.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM5		6.3.
KD	KD2, KD3, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3, HK4		
EK	EK1, EK2, EK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK, HKK2, HKK3	7	7.1.
KE	KE1, KE2		
STEM	STEM4		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII4		

HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1		

### Balioak (LH6)

HKK	HKK1, HKK2, HKK3	1	1.2
KD	KD1, KD4		1.3
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
EK	KE1		
KPSII	KPSII1, KPSII2		
KAKK	KAKK3		

### ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA

**1. zikloa:** Landarea biziduna dela. Landarearen atalak (erroa, zurtoina, hostoa, fruitua) . Zer jaten dugun landareetatik . Negutegia zer den . Lurra zaindu behar dela . Garbitasunaren garrantzia

**2. zikloa:** Negutegiaren funtzioa . Landareen beharrak (ura, lurra, eguzkia) . Lurra prestatzearen garrantzia. .Belar txarren eragina. Landatzea eta birlandatzea . Baserriko lan tradizionalak. Elikadura osasuntsua

**3. zikloa:** Baratza ekosistema gisa ulertzea eta lanak modu arduratsuan egitea. Lurra zaintzearen garrantzia . Landareen bizi-zikloa. Nekazaritzaren oinarritzko teknikak . Elikadura eta Osasuna. Kontsumo arduratsua . Baserriko lan tradizionalak eta gaur egungoak . Ingurumenarekiko errespetua

### TAILERRAREN DESKRIBAPENA

**INFORMAZIO OROKORRA:** Lehenik eta behin, taldeak jolastokian batzen ditugu. Ondoren, jantzi beharreko materiala zein den azaltzen diegu eta hori egin ostean, tailarrera goaz. Bertan, sartu baino lehen, baratza barruan zer egiten dugun eta zergatik den hain garrantzitsua azaltzen diegu. Horrez gain, baratza barruan nondik ibili behar diren esaten zaie. Aurreko guztia argitu ondoren, barruan, negutegiaren garrantzia azpimarratzen zaie adibide erraz batekin, eta ondoren, tailerlean zer landuko dugun azaldu. Gure tailerren iraupena 90 minutukoa izaten da. Aurkezpena eta azalpena egiteko 20-25 minutu erabiltzen dira. Gainerakoa, landareak ikusten eta baratzako lan desberdinak egiten.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Baratza tailerra egiteko material bakarra, mendiko botak edo katiuskak dira. Beste lan tresna guztiak, Baratze baserri eskolak jartzen ditu. Tailer hau egiteko, arropa erosoak ekartzea gomendatzen da.

**TAILERRA:** Negutegira sartu baino lehen, negutegia baratzeko lekurik garrantzitsuenetariko bat dela

azaltzen zaie. Barruan landareak, barazkiak eta fruituak landatu eta zaintzen ditugula eta bizitzeko ezinbestekoa den gauza bat, ongi eta osasuntsu elikatzea dela.

Horregatik barruan landatu eta zaintzen den guztia, guk gure baserri eskolan kontsumitzen dugula.

Ikasleak barruan daudenean, ze izen duen plastikozko eraikuntza honek galdetzen zaie eta horrez gain, zein garrantzia duen azpimarratzen da (negutegia). Ikasleak erantzun eta gero, adibide txiki bat ematen zaie haiek ondo ulertu dezaten. Ostean, landareen atalak zeintzuk diren birpasatzen ditugu eta azalpenarekin amaitzeko, tailerrean egingo dituzten jarduerak esaten dizkiegu.

1. **Landareak ikusi:** Baratza barruan dauden landare desberdinak ikusi, asmatu zein den eta landarearen zein atal den jangarria esan
2. **Lurra prestatu:** landareak, barazkiak edota fruituak landatu baino lehen lurra prestatu egin behar dela azaltzen zaie. Horretarako erabiliko duten materiala Atxurra izango dela eta nola erabiltzen den irakasten zaie. Azalpena eman eta gero ikasleak lurra prestatzen hasten dira.
3. **Belar txarrak:** Landatu ditugun barazkien artean belar txarrak hasten dira eta horiek kentzea zergatik den hain garrantzitsua azaltzen zaie. Orduan zelan jarri behar diren eta zelan kendu behar diren azaldu ostean, ikasleak belar txarrak kentzen hasten dira.
4. **Landareak birlandatu:** Ikasle bakoitza hazitegitik landare bat hartzen du eta zelan birlandatu behar diren irakasten zaie. Azalpena eman ostean, ikasleak banaka haien landarea birlandatzen dute.
5. **Artoa xehatu:** Orain dela urte asko baserriak soilik zeudela eta baserri guztietan artoa zutela landatuta irakasten zaie. Arto horrekin, arto birrindua (hirina) egiten zutela eta hori zela berain lehengai nagusia azaldu ostean, (ogia, taloak...) artoa birrintzeko Errota zelan erabiltzen den azaltzen da eta umeak artoa xehatzen dute.

**Bukaera:** Baratzako tailerrari amaiera eman baino lehen, tailerrean egindakoaren errepasso txiki bat egiten dugu. Ikasleei zein jarduera gustatu zaien gehien galdetzen zaie.

Gero, Baratzeko baserriaren atarira iristen garenean, tailerra bukatu aurretik, azkenengo azalpena ematen da. Higienearen garrantziaz, eta lurrarekin ibili garela argudiatuz, guztiok eskuak garbitu behar ditugula azpimarratzen dugu, jolastera joan aurretik.

## 7.4. LORAGINTZA/ONDDOAK

LORAGINTZA / ONDDOAK			
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurune</li> <li>• Balioak (LH6)</li> </ul>		<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Izaki bizidunen beharrak</li> <li>• Zaintza eta pazientzia</li> <li>• Emozioen identifikazioa</li> </ul>	
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> Tailer honetan ikasleek landareak edo onddoak zaintzen dituzte, prozesuak denboran zehar ulertuz. Jarduera honek norberaren erritmoa, lasaitasuna eta emozioen kudeaketa lantzeko aukera eskaintzen du.			
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA			
Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
Ingurune			
HKK	HKK1, HKK2, HKK3	3	3.2.
KE	KE1, KE2		
STEM	STEM1, STEM2, STEM3, STEM4		
KD	KD1, KD2, KD3, KD5		
KPSII	KPSII3, KPSII4, KPSII5		
HK	HK1, HK4		
EK	EK1, EK2, EK3		
KAKK	KAKK4		
HKK	HKK1, HKK3	5	5.1.
KE	KE1, KE2		5.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5		5.3.

KD	KD1		5.4.
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK4		
EK	EK1		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
HKK	HKK1, HKK2, HKK5	8	8.2.
KE	KE1, KE3		
KD	KD1, KD2, KD3		
KPSII	KPSII3		
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1, KAKK2		

**Balioak (LH6)**

HKK	HKK1, HKK2, HKK3	1	1.1.
KD	KD1, KD4		1.2
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
EK	KE1		
KPSII	KPSII1, KPSII2		
KAKK	KAKK3		

**ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA**

**1. zikloa:** Landarea biziduna dela. Landarearen atalak (erroa, zurtoina, hostoa, fruitua) . Zer jaten dugun landareetatik . Negutegia zer den . Lurra zaindu behar dela . Garbitasunaren garrantzia

**2. zikloa:** Negutegiaren funtzioa . Landareen beharrak (ura, lurra, eguzkia) . Lurra prestatzearen garrantzia. .Belar txarren eragina. Landatzea eta birlandatzea . Baserriko lan tradizionalak. Elikadura osasuntsua

**3. zikloa:** Negutegia ekosistema gisa ulertzea eta lanak modu arduratsuan egitea. Lurra zaintzearen garrantzia . Landareen bizi-zikloa. Nekazaritzaren oinarritzko teknikak . Elikadura eta Osasuna. Kontsumo arduratsua . Baserriko lan tradizionalak eta gaur egungoak . Ingurumenarekiko errespetua.

Onddoen kasuan haiek eta basoa aztertuz beraien ekosistemaren ezaugarriak aztertuko dugu.

### TAILERRAREN DESKRIBAPENA

**INFORMAZIO OROKORRA:** Tailer honetan landareengana hurdilduko gara eta haien zainketak ekeinyzen dizkiegun onurataz jabetuko gara. Lorategian, landareen atalak azlatzen aizkie- Ereinketa zuzena egiten dute, denborak eta zainketa aztertuz eta ulertuz. Landareen hazkunde prozesura nikusiko dute, Honekin batera, lorategiko lan tresnak erakutsi eta nola erabilzten diren erakusten zaie.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Lorategiko tailerra egiteko materiala negutegian bertan egongo da. Beraz ikasleek lanera joatea soil soilik lan egiteko oinetakoak jantzi beharko dituzte.

**TAILERRA:** 90 minutuko tailer bat da. Taldea jolastokian elkartzen da eta lanegiteko oinetakoak jantzi eta gero, negutegira abiatzen gara. Lehenengo momentuan negutegiaren erabileraren zergatia aztertzen dugu eta haren ezaugarriak landarekiko eragina zein den ikusi ere. Orduan adinaren arabera landareen atalak aztertzen dira eta landare berri abt lortzeko egin behar dena, nola zaindu etabar. Gero lorategian zuzenean lanegiteko aukera izango dute, lorategiko tresnan bereziekin. Egingo dituzten lan mota ezberdinak honako hauek dira:

- Lurra prestatzera erakusten zaie
- Landare txarrak kentzearen garrantzia eta arrazoia
- Adaxkak lortzen erakusten zaie
- Mozketaren zergaitia
- Ureztaketa prozedura ezberdinak

Bukaera heltzen denean, lanabes bakoizta bere tokira bueltatzen dugu, tailerra txukun uzteko. Egindako lanaz jabetzen gara, guztien parte hartzeak izan duen garrantziaz konturatuz. Agurraren momentuan zer izan den gehien gustatzen zaien lana galdetzen zaie, ia inoiz egin duten...orduan oinetakoak kendzeko eskatzen zaie eta eskuak garbitu behar dute.

**OHARRA:** Onddoen denboraldietan basoraino hurbildu gaitzke eta onddoekin egiten dugu gure azterketa. Normalean 5. Eta 6. mailan

## 7.5. ESKULANGINTZA / ZUR LANKETA

### ESKULANGINTZA / ZUR LANKETA

**Arlo nagusiak:**

- Ingurune
- Arte Hezkuntza
- Baloreak (LH6)

**Jakintza nagusiak:**

- Forma, espazioa eta bolumena
- Sormena eta adierazpen plastikoa
- Eskulangintzako materialaren erabilera

**Ikas egoeraren azalpena:**

Ikasleek sorkuntza artistikoak egiten dituzte, ingurunean bizitakoa adierazteko. Zur lanketan, hiru dimentsiotako lanak egiten dira, planifikazioa, zehaztasuna eta irudikapena garatuz.

ARGUDIAKETA KURRIKULARRA

Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<b>Ingurune</b>			
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	HKK1, HKK2, HKK3 KE1, KE2 STEM1, STEM2, STEM3, STEM4 KD1, KD2, KD3, KD5 KPSII3, KPSII4, KPSII5 HK1, HK4 EK1, EK2, EK3 KAKK4	3	3.2. 3.3.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	HKK1, HKK3 KE1, KE2 STEM1, STEM2, STEM4, STEM5 KD1 KPSII4 HK1, HK4 EK1 KAKK1, KAKK2	5	5.2. 5.3. 5.4.
HKK KE KD KPSII HK	HKK1, HKK2, HKK5 KE1, KE3 KD1, KD2, KD3 KPSII3 HK1, HK2, HK3	8	8.2.

KAKK	KAKK1, KAKK2		
<b>Arte Hezkuntza</b>			
	HKK1 KE3 STEM3 HK2 EK1, EK3 KAKK3, KAKK4	4	4.1 4.2
<b>Balioak (LH6)</b>			
HKK KD KPSII HK EK KPSII KAKK	HKK1, HKK2, HKK3 KD1, KD4 KPSII4 HK1, HK2, HK3 KE1 KPSII1, KPSII2 KAKK3	1	1.1. 1.2
<b>ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA</b>			
<p><b>1. zikloa:</b> Sormena eta material naturalekiko interesa piztU. Baserrian umeek zer egiten zuten. Naturako materialak erabil daitezkeela . Eskuz egindako jostailuak . Jolasa eta sormena , Talde lana. Materiala zaintzea</p> <p><b>2. zikloa:</b> Baserriko lan tradizionalak. Artilea, egurra, hostoak, fruituak.. Eskuz egindako objektuak .Tresna sinpleen erabilera . Pazientzia eta arreta . Sormena eta diseinua</p> <p><b>3. zikloa:</b> Egurraren garrantzia euskal kulturaren. Egurra lehengai bezala. Segurtasuna lanean. Tresnen erabilera egokia. 2D eta 3D espazioa. Pazientzia eta zehaztasuna. Lanaren erantzukizuna</p>			
<b>TAILERRAREN DESKRIBAPENA (1., 2. ,3. mailak) ESKULANGINTZA</b>			
<b>INFORMAZIO OROKORRA:</b>			
Ziklo honetan hurrek senitartekoei esker baserrian ikasten zutela ikusten dugu, bai baratza eta baita			

animaliak zaintzen, bai artilea lantzen, e.a.... baina haurrak izanik jolastu ere jolastuko zuten, eta hemen letorke galdera. Zertara?

Galdera honen erantzuna eman eta gero, prestatutako eskulanarekin jarraituko genuke. Horretarako, baserri inguruan aurkitu ahal den “zerbait” erabiliko dugu: Hostoak, fruituak, artileak, makilatxoak, adartxoak...

Elementu / material honetaz gain beraiantzat ezagunagoak direnak ere eskura izango dituzte: Kartoia, kartulina, margoak, artaziak...

OHARRA: Urtaroaren arabera eta eskura dugun materialaren arabera eskulanak aldaketaren bat izan dezake.

#### **BEHARREZKO MATERIALA:**

- Batzuetan haiek lortuko dute baserri inguruan.
- Beste batzuetan aldeztuak erabiltzeko da.

#### **TAILERRA:**

Iraupena tailer guztiak bezala 90 minutukoa da. Hasieran taldea batzen dugu eta guztion izenak esaten ditugu (guzti hau jolastokian egiten da)

Tailerrera sartzen garenean bakoitza bere tokian eseriko da eta horrela aurkezpen, sarrera txikiarekin hasiko gara, elkarrizketa baten bitartez. Gero prestatutako eskulanarekin jarraituko dugu.

Posible bada, makila, artilearekin e.a..... jostailu txiki bat egingo dugu.

Azkeneko 10 minutuak tailerra jasotzeko erabiliko dugu.

### TAILERRAREN DESKRIBAPENA (4., 5., 6. mailak) ZUR LANKETA

#### **INFORMAZIO OROKORRA:**

Lehenik eta behin, taldeak batzen ditugu jolastokian eta, tailerra egiten den lekura abiatzen gara. Bertan, gure kulturaren egurrak eta zur lanketak izan duen garrantzia azaltzen zaie eta beraz, nola lortzen dugun eta nola landu behar den erakusten zaie.

Beharrezko azalpen guztiak ematen zaizkie tailerra egiteko, eta ulertu dutela egiaztatutakoan, tailerrari hasiera ematen diogu.

#### **BEHARREZKO MATERIALA:**

Baratze Baserri Eskolan guk uzten diegu material guztia umeei tailerrak egiteko.

Tailer hau egiteko, arropa erosoak ekartzea gomendatzen da. Beste material guztia, gure zurgintzako tailerrean utziko diegu (Zur mailua, gubiak...)

#### **TAILERRA:**

Tailer honetan, Baratzen oso garrantzia handia ematen diegun KONPETENTZIA ezberdinak lantzen dira.

**Hizkuntza konpetentzia** ezinbestekoa iruditzen zaigu, gure baserrietan, euskararen erabilera

ezinbestekoa baita eta horregatik, komunikazio tresna bezala erabiltzen dugun hizkuntza da.

Egurra lehengaia bezala erabiliz zur lanketa egingo dute, konkretuki Euskal Herrian ohikoa den lore baten marrazkia. Honekin umeekin landu nahi duguna espazioa (2 dimentsiotan eta 3 dimentsiotan) ikusteko gaitasuna litzateke.

- **1. ariketa:** Zuraren Betak kontuan hartuz, hau prestatzea, lixa paperarekin ahalik eta suabeen utziz.
- **2. ariketa:** Zura, lehenengo erramintarekin (Sarjenta) behar den bezala mahaiari lotu, izan ere gero lantzeko orduan ez mugitzea ezinbestekoa da eta.
- **3. ariketa:** Zuraren gainean marrazkia irudikatu. Honetarako irakasleak aurrez prestatutako marrazkia, kalko paperarekin egurrera pasatuz.
- **4. ariketa:** Irakaslearen ebaluazioa positiboa baldin eta orain arteko ariketak ongi egin baldin baditu, (ongi lixatuta badago, marrazkia ongi ikusten baldin bada zur zatian...) hurrengo ariketarekin hasiko dira.

**Momentu honetan, lana egiteko behar diren bi edo hiru erramintak azaltzen zaizkie ( Zur mailua, Gubia punta zuzena, eta gubia punta erdiborobila )**

Umearen jarrera lana egitekoa baldin bada eta ez jolasean ibiltzekoa erramintekin, lanean hazteko baimena emango zaio, momentu oro gure ikuskapenarekin.

- **5. ariketa:** Marrazkiaren lehenengo zatian, gubia punta zuzenarekin irudiko lorea lantzen hasiko dira.
- **6. ariketa:** Bigarren zatian, gubia punta erdi borobilarekin, kanpoaldeko ilargiak egingo dituzte.
- **7. ariketa:** Irudikatutako marrazkia guztiz landutakoan, eta irakasleak azken zuzenketak egindakoan bakoitzari, zuraren "Kantuak" hilko dituzte eskuetan zurarekin dabiltzanean, puntekin minik ez hartzeko.

Horretarako, berriz ere lixa papera hartuko dute zur zatiaren izkinak pixka bat borobiltzeko.

Baratzeko baserriaren atarira iristen garenean, tailerra bukatu aurretik, azkenengo azalpena ematen da Higienearen garrantziaz, eta zurarekin ibili garela argudiatuz, guztiok eskuak garbitu behar ditugula azpimarratzen dugu, jolastera joan aurretik.

## 7.6. IBILBIDEA (NATURAN)

IBILBIDEA (NATURAN)			
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurune</li> <li>• Heziketa Fisikoa</li> <li>• Baloreak (LH6)</li> </ul>		<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekosistemak eta biodibertsitatea</li> <li>• Ingurunearen behaketa</li> <li>• Jasangarritasuna</li> </ul>	
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> Inguruko naturan egiten den ibilbidearen bidez, ikasleek ingurunea aztertzen dute behaketa zuzena erabiliz. Biodibertsitatea, paisaia eta giza jardueraren eragina lantzen dira.			
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA			
Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<b>Ingurune</b>			
HKK	HKK1, HKK2, HKK3	2	2.1.
KE	KE1, KE2		2.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM4		2.3.
KD	KD1, KD2		
KPSII	KPSII4, KPSII5		
HK	HK4		
EK	EK1, EK3		
HKK	HKK1, HKK2, HKK3	4	4.1
KE	KE1, KE2, KE3		4.2.
STEM	STEM5		
KD	KD2, KD3		
KPSII	KPSII1, KPSII2, KPSII3		
HK	HK3, HK4		
EK	EK1		

HKK	HKK1, HKK3	5	5.1.
KE	KE1, KE2		5.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5		5.4.
KD	KD1		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK4		
EK	EK1		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
HKK	HKK1, HKK2, HKK3, HKK5	6	6.1.
KE	KE1, KE2, KE3		6.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM5		
KD	KD2, KD3, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3, HK4		
EK	EK1, EK2, EK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK, HKK2, HKK3	7	7.1.
KE	KE1, KE2		
STEM	STEM4		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK1, HKK2, HKK5		8
KE	KE1, KE3		
KD	KD1, KD2, KD3		
KPSII	KPSII3		

HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
<b>Heziketa fisikoa</b>			
HKK	HKK5	4	4.2.
KPSII	KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5		
HK	HK2, HK3		
EK	EK3		
KAKK	KAKK1		
<b>Balioak (LH6)</b>			
HKK	HKK1, HKK2, HKK3	1	1.1.
KD	KD1, KD4		1.2
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
EK	KE1		
KPSII	KPSII1, KPSII2		
KAKK	KAKK3		
HKK	HKK2, HKK5	3	3.1.
EK	KE1, KE2		3.2.
STEM	STEM5		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII2		
HK	HK2, HK3, HK4		
EK	EK1		
<b>ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA</b>			
<p><b>1. zikloa:</b> Zuhaitzak bizidunak dira . Animaliek basoan bizi dira . Txoriak entzun eta ikusi daitezke. Landareak ukitu eta behatu daitezke . Natura zaindu behar da . Isilik ibiltzearen garrantzia</p>			

**2. zikloa:** Zuhaitz mota desberdinak. Basoko animaliak. Txorien ohiturak .Landareen funtzioa naturan. Gizakiaren eragina naturan. Ingurumena zaintzea

**3. zikloa:** Ekosistema zer den . Zuhaitzen funtzioa. Animalien eta landareen arteko harremana. Biodibertsitatea . Ingurumenaren zaintza . Baserria eta natura. Orientazioa eta ingurunea

## TAILERRAREN DESKRIBAPENA

### **INFORMAZIO OROKORRA:**

Lehenik eta behin, taldeak batzen ditugu jolastokian eta, tailerra egiten den lekura abiatzen gara.

Beharrezko azalpen guztiak ematen zaizkie tailerra egiteko, eta ulertu dutela egiaztatutakoan, tailerrari hasiera ematen diogu

### **BEHARREZKO MATERIALA:**

Baratze Baserri Eskolan guk uzten diegu material guztia umeei tailerrak egiteko.

Tailer hau egiteko, arropa erosoak ekartzea gomendatzen da eta horrez gain, mendirako oinetako egokiak.

Beste material guztia guk utziko diegu.

### **TAILERRA:**

Urtaroaren eta ikasleen mailaren arabera tailer hau desberdin egitea gustatzen zaigu.

Adibidez, Udaberria oso urtaro aproposa izaten da gure inguruetakoko flora ikasteko. Beraz, mendi buelta aprobeztatzen dugu gure inguruetan aurki ditzakegun landareak identifikatu eta lantzeko.

Urtaro hau ere animaliei dagokienez, oso urtaro aberatsa izaten da hegaztiei dagokionean. Udaberrian gero eta hegazti gehiago ikusten eta entzuten ditugu, beraiek bere kabiak egiteko leku apropos bila ibiltzen direlako.

Hau ikasteko, basoan zehar puntu desberdinetan janlekuak dauzkagu jarrita, eta txorientzako janaria jartzen diegu, eurak guregana gehiago hurbil daitezzen. Horrekin, umeei dauzkaten fitxeekin identifikazio taulak betetzen ditugu.

Udazkenean aldiz, perretxikoen tailerra egiten dugu, aurretik baserri eskolako ikasgela batean beraien atalak ikasiz eta gero mendiko ibilbidean praktikan jartzeko.

Ibilbidera otzara bat eramaten dugu, bertan egon ahal diren perretxiko, onddo eta abar batzeko....

Baratzeko baserriaren atarira iristen garenean, tailerra bukatu aurretik, azkenengo azalpena ematen da Higienearen garrantziaz, eta mendian ibili garela kontuan hartuz, guztiok eskuak garbitu behar ditugula azpimarratzen dugu, jolastera joan aurretik.

Horrez gain, mendiko oinetakoak apalean uzten dituzte, eta oinetako garbiak jantziko dituzte.

### **OHARRA:**

**Tailer hau egiteko, eguraldia kontuan hartu beharra dago. Txarra eginez gero, beste alternatiba batzuk ditugu. Adibidez, KM0ko tailerra**

## 7.7. ZALDIA ETA HERRI KIROLAK

ZALDIA ETA HERRI KIROLAK			
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurune</li> <li>• Heziketa fisikoa</li> <li>• Baloreak (LH6)</li> </ul>		<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Koordinazioa eta oreka</li> <li>• Gorputz-kontrola</li> <li>• Segurtasuna eta ardura</li> <li>• Gaitasun fisikoak (indarra, malgutasuna, erresistentzia, abiadura)</li> <li>• Pertsonen arteko harremana (animatu, lagundu, estrategiak, argudiaketak...)</li> <li>• Kulturaren ezagutza</li> </ul>	
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> <p>Zaldiarekin egiten den jarduerak gorputzaren kontrola, oreka eta koordinazioa lantzen ditu, animaliarekiko errespetua eta konfiantza garatuz.</p> <p>Herrikiroletan Euskal Herriko kulturaren ondarea diren kirolak ezagutu eta praktikan jartzen dituzte. Horrela kulturaz eta kirolaz disfrutatuz.</p>			
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA			
Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<b>Ingurune</b>			
HKK KE STEM KD KPSII HK EK	HKK1, HKK2, HKK3 KE1, KE2 STEM1, STEM2, STEM4 KD1, KD2 KPSII4, KPSII5 HK4 EK1, EK3	2	2.3.
HKK	HKK1, HKK2, HKK3	4	4.1

KE	KE1, KE2, KE3		4.2.
STEM	STEM5		
KD	KD2, KD3		
KPSII	KPSII1, KPSII2, KPSII3		
HK	HK3, HK4		
EK	EK1		
HKK	HKK1, HKK3	5	5.2.
KE	KE1, KE2		5.3.
STEM	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5		
KD	KD1		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK4		
EK	EK1		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
HKK	HKK1, HKK2, HKK3, HKK5	6	6.1.
KE	KE1, KE2, KE3		6.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM5		
KD	KD2, KD3, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3, HK4		
EK	EK1, EK2, EK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK, HKK2, HKK3	7	7.1.
KE	KE1, KE2		
STEM	STEM4		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII4		

HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK1, HKK2, HKK5	8	8.2.
KE	KE1, KE3		
KD	KD1, KD2, KD3		
KPSII	KPSII3		
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
<b>Heziketa fisikoa</b>			
HKK	HKK5	4	4.2.
KPSII	KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5		
HK	HK2, HK3		
EK	EK3		
KAKK	KAKK1		
<b>Balioak (LH6)</b>			
HKK	HKK1, HKK2, HKK3	1	1.1.
KD	KD1, KD4		1.2.
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
EK	KE1		
KPSII	KPSII1, KPSII2		
KAKK	KAKK3		
HKK	HKK2, HKK5	3	3.1.
EK	KE1, KE2		3.2.
STEM	STEM5		
KD	KD1, KD4, KD5		

KPSII	KPSII2		
HK	HK2, HK3, HK4		
EK	EK1		

#### ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA

**1. zikloa:** Animaliekiko errespetua, segurtasuna eta lasaitasuna, gorputzaren oreka, Euskal kirolak Talde lana. Arauen errespetua. Parte hartzea . Gorputzaren kontrola

**2. zikloa:** Segurtasun arauak, oreka eta koordinazioa, animalia ulertzea eta enpatia. Herri kirolen jatorria Baserriko lana eta kirola . Talde lana . Esfortzua eta Errespetua.

**3. zikloa:** Euskal kultura. Herri kirolen historia. Esfortzua Elkarlana . Kiroltasuna . Gorputzaren kontrola

#### TAILERRAREN DESKRIBAPENA (ZALDIA)

##### INFORMAZIO OROKORRA:

Lehenik eta behin, taldeak batzen ditugu jolastokian eta beharrezko materiala janzten dutenean, tailerra egiten den lekura abiatzen gara. Bertan, azalpen guztiak ematen zaizkie umeei tailerra egiteko, eta ulertu dutela egiaztatutakoan, tailerrari hasiera ematen diogu.

##### BEHARREZKO MATERIALA:

Tailer hau egiteko, arropa eroso eta ekarri behar da. Horrez gain, lan egiteko ekarri dituzten botak edo katiuskak ere beharrezkoak dira.

##### TAILERRA:

Tailer hau, Baratze kokatuta dagoen inguru naturala erabiltzen da, umearen emozioa eta haien arreta lortzeko tresna gisa. Horrez gain, komunikaziorako konpetentzia ezinbestekoa iruditzen zaigu, gure baserrietan, euskararen erabilera ezinbestekoa baita eta horregatik, komunikazio tresna bezala erabiltzen dugun hizkuntza da.

- **1. ariketa:** Segurtasun elementuak (Buruko Kaskoa) behar den bezala jarri eta lotu.
- **2. ariketa:** Erlaxazio ariketa egin, arnasa sakon hartuz eta botaz 3-4 aldiz, umea lasaituta egotea lortu arte.
- **3. ariketa:** Zaldia edo behorraren ondora hurbildu eta lehenengo kontaktua izan, berau behar den bezala laztanduz.
- **4. ariketa:** Koordinazio ariketa behar den bezala egin, zaldi gainera igotzeko eman diren pausuak jarraituz, (lehenengo ezkerreko eskua monturan jarri, gero ezkerreko oina estriboan sartu...)
- **5. ariketa:** Oreka mantentzea zaldiaren gainean paseoak irauten dituen pistako 2 bueltak ematen dituen bitartean, bere gorputz jarrera egokia mantentzea bizkarra, hankak, besoak, eskuak eta burua jarrera egokian eramanez.
- **6. ariketa:** Koordinazio ariketa behar den bezala egin, zalditik jaisteko egin behar diren pausuak jarraituz, (lehenengo oinak estriboetatik atera, gero eskuineko hanka monturaren atzealdetik pasa, eta poliki-poliki jaitsi lurra hankekin ukitu arte.)

- **7. ariketa:** Denbora baldin badago, zaldiari orrazia pasatu bikoteka, goitik behera eta aurretik atzera indar egokiarekin mugituz, ez gogorregi ezta bigunegi ere, zaldia garbituz eta adimen komunikazioa eta enpatia landuz taldekidearekin.

Ordu eta erdiko tailerra izaten da hau eta ordua iristen denean, zaldiari montura, eta burukoa kendu behar izaten zaizkio. Hori egindakoa, poliki-poliki, jolastokirantz abiatzen gara guztiok elkarrekin.

Baratzeko baserriaren atarira iristen garenean, tailerra bukatu aurretik, azkenengo azalpena ematen da Higienearen garrantziaz, eta animalia batekin ibili garela argudiatuz, guztiok eskuak garbitu behar ditugula azpimarratzen dugu, jolastera joan aurretik.

## TAILERRAREN DESKRIBAPENA (HERRI KIROLAK)

### INFORMAZIO OROKORRA:

Lehenik eta behin, taldeak batzen ditugu jolastokian. Ondoren, gela batera abiatzen gara aurkezpen bat egitera.

Bertan, gure kulturaren herri kirolek historian zehar izan duten garrantzia azaltzen zaie. Horrez gain, herri kirolen harremana baserriarekin erakusten zaie, adibideekin, irudiekin eta bideoen bitartez.

Gure tailerren iraupena 90 minutukoa izaten da. Aurkezpena, azalpena eta taldeak egiteko 20- 25 minutu erabiltzen ditugu. Gainerakoa, berriz, herri kirol desberdinak praktikan jartzen pasatzen dugu.

### BEHARREZKO MATERIALA:

Baratze Baserri Eskolan guk uzten diegu material guztia umeei tailerrak egiteko (Txokorrak, Txingak...)

Tailer hau egiteko, arropa eroso ekartzea gomendatzen da.

### TAILERRA:

Tailer honetan, Baratzen oso garrantzia handia ematen diegun adimen desberdinak lantzen dira. Hizkuntz komunikaziorako konpetentzia ezinbestekoa iruditzen zaigu, gure baserrietan, euskararen erabilera ezinbestekoa baita eta horregatik, komunikazio tresna bezala erabiltzen dugun hizkuntza da.

Horrez gain, tailer honetan **Herritartasunerako konpetentzia** ere landu nahi da umeekin, honen bitartez umeei haien gorputza eta haien trebesia fisikoak ezagutzea nahi dugu.

**Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia** lantzen da baita ere. Lan taldea denez, beraien arteko harremana, konfiantza... sustatzen dugu tailer honekin. Garrantzi handia ematen zaio elkar laguntzeari eta animatzeari.

Aurreko guztia argitu ondoren eta tailerrari hasiera emateko, taldea bi talde ezberdinetan banatzen dugu herri kirolean lehiatzeko.

- **1. Ariketa:** *Txokor batzea:* Kirol hau egiteko, gure baratzen batutako artaburu txokorra

erabiltzen dugu, horrela tailer biak lotzen ditugu elkarrekin. Herri kirol honetan egin beharrekoa lana, txorrrak ahalik eta denbora gutxienean batzea da eta hurrengo taldekideak berriz ere hasieran zeuden bezala jartzea, taldekide guztiok parte hartu arte.

- **2. ariketa:** *Harri jasotzea:* Lehenengo talde batek jolasten du eta gero besteak. Lan hau egiteko, taldekide bakoitzak baloi medizinalari jasoera bat eman behar dio, eta azken taldekideak azken jasoera ematen dionean, kronometroa gelditzen da.
- **3. ariketa:** *Giza froga:* Lehenengo talde batek jolasten du eta gero hurrengoak. Ariketa hau gurpil pisutsu bat ibilbide zehatz batetik eramatea da eta gero hurrengo taldekideari txanda pasatzean datza. Jolas honetan denbora neurtzen dugu.
- **4. ariketa:** *Txinga eroatea:* Bi taldeak batera egiten dute ariketa hau. 6 kiloko bi txinga eraman behar ditu partaide bakoitzak ibilbide zehatz batetik, eta hasierara istean, hurrengo taldekideari txingak pasatu. Guztiok parte hartutakoan lehen bukatzen duen taldeak irabazten du puntua.
- **5. ariketa:** *Sokatira:* Talde bat mutur baten, eta bestea beste muturrean. Ariketa honen helburua, erdian dagoen zapia zure aldera eramatea da.
- **6. ariketa:** *Saku lasterketa:* Bi taldeek batera hasten dute lasterketa sakuekin. Ibilbide bat osatu ondoren sakua pasatu behar zaio hurrengoari, horrela taldekide guztiak parte hartu arte.

Herri kirolei amaiera eman ondoren, herritartasunerako konpetentzia lantzeko, berriz ere elkarlanean, materiala batzen da jolastokia libre uzteko. Gero eskerrak ematen zaizkie beraien arteko errespetuarengatik eta kiroltasunarengatik, eta horrela, ematen dugu tailerraren amaiera.

## 7.8.-LEHEN SEKTOREA – TOKIKO EKOIZLEEN ETA SASOIKO PRODUKTUEN KONTSUMOA- EKONOMIA ZIRKULARRA

KMO	
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurune</li> <li>• Euskera</li> <li>• Balioak (LH6)</li> </ul>	<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahozko adierazpena eta entzute aktiboa</li> <li>• Hiztegia eta ahozko diskurtsoa</li> <li>• Elkarrizketa eta azalpena</li> </ul>
<p><b>Ikas egoeraren azalpena:</b> Baserri batean, ekonomia zirkularra zer den oso argi dugu, autohornikuntza-erregimen bat izan ohi baitute. Erraz ikus dezakegu zazpi R-ak zer direla: hausnartu, baztertu, murriztu, berrerabili, konpondu, birziklatu eta berreskuratu. Bizitzaren zikloa da. Eta aurkikuntza horrek neurrigabeko kontsumoa saihestera eta hori saihesteko eta</p>	

planetaren jasangarritasunari laguntzeko bideak aurkitzera eraman gaitzake.

Honekin lotuta **goimailako produktuak** aztertzen dituzte gure lehen sektorearen garrantziaz ohartzeko

**Garapen jasangarria landa-ingurunean:** jardueren bidez azpimarratzen da landa-eremuaren biziraupena funtsezkoa dela, ekoizpen-jarduerak, paisaiaren kontserbazioa eta biodibertsitatearen babesa modu orekatuz uztartuz. Abeltzaintza estentsiboarekin eta Urkiolako Parke Naturaleko baso-ingurunearekin harreman zuzena izateak gizakiaren jarduera eta naturaren kontserbazioa bateragarriak direla ulertzeko aukera ematen du.

**Nekazaritza familiakoa eta belaunaldien arteko erreleboa:** ikasleek baserriko eguneroko lana zuzenean bizitzen dute, nekazaritza familiakoa euskal gizartearen eta ekonomiaren kohesiorako oinarritzko elementua dela barneratuz. Era berean, sektorearen etorkizuna belaunaldi berrien motibazioaren, prestakuntzaren eta inplikazioaren mende dagoela ulertzen dute.

**Elikadura-burujabetza eta elikadura osasungarria:** baratzearen, negutegiaren eta sukaldaritza-tailerren bidez, ikasleek elikagaien jatorriari buruzko hausnarketa egiten dute, sasoikotasunaren garrantziaz jabetzen dira eta kanpoko inportazioen mendekotasuna murriztearen beharra ulertzen dute, bizimodu osasungarriaren aldeko ohiturak sustatuz.

**Biodibertsitatearen babesa:** Gure landa eta basoetan biodibertsitatea mantetzea guztiz derrigorrezkoa da; eta ingurumen-hezkuntzako jarduerak lotura zuzena dute 2030erako Euskal Biodibertsitate Estrategiarekin eta Klima Aldaketara Egokitzeko Euskal Planarekin, helburu horiek ikasleen eguneroko esperientziara hurbilduz.

#### ARGUDIAKETA KURRIKULARRA

Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<b>Ingurune</b>			
HKK	HKK1, HKK3	5	5.1.
KE	KE1, KE2		5.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5		5.4.

KD	KD1		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK4		
EK	EK1		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
HKK	HKK1, HKK2, HKK3, HKK5	6	6.1.
KE	KE1, KE2, KE3		6.2.
STEM	STEM1, STEM2, STEM5		6.3.
KD	KD2, KD3, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3, HK4		
EK	EK1, EK2, EK3		
KAKK	KAKK1		
HKK	HKK, HKK2, HKK3	7	7.1.
KE	KE1, KE2		
STEM	STEM4		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII4		
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1		
<b>Euskera</b>			
HKK	HKK1, HKK5	1	1.2
KE	KE2, KE3		1.3
HK	HK1, HK2, HK3		
KAKK	KAKK1, KAKK3		
HKK	HKK2	2	2.1

KE	KE2		2.2
STEM	STEM4		
KD	KD1, KD3		
KPSII	KPSII3		
HK	HK3		
HKK	HKK1, HKK5	3	3.2
KE	KE2		
STEM	STEM4		
KD	KD2, KD3		
KPSII	KPSII1		
HK	HK2, HK3		
EK	EK1		
<b>Balioak (LH6)</b>			
HKK	HKK2, HKK5	3	3.1.
EK	KE1, KE2		3.2.
STEM	STEM5		
KD	KD1, KD4, KD5		
KPSII	KPSII2		
HK	HK2, HK3, HK4		
EK	EK1		
<b>ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA</b>			
<p><b>1. zikloa:</b> Ziklo honetan ikasleen esperientzia sentsoriala eta hurbilketa praktikoa lehenesten dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Km 0 produktuak zer diren modu sinplean ulertzea (baserritik datozen elikagaiak).</li> <li>• Elikagaien identifikazioa zentzumenen bidez (ukitu, usaindu, dastatu...).</li> <li>• Oinarrizko hiztegia lantzea (frutak, barazkiak, esnea, arrautzak...).</li> <li>• Jolasaren bidez ikastea, jakin-mina eta parte-hartzea sustatuz.</li> <li>• Naturarekiko eta elikagaiekiko errespetua garatzea.</li> </ul> <p>Ezaugarriak: Azalpen laburrak eta argiak, jarduera manipulaziozkoa eta ludikoa, eta esperimendazio zuzena.</p>			

**2. zikloa:** Ziklo honetan ulermena sakontzen da eta hausnarketa gidatua sartzen da.

- Km 0 kontzeptua ulertzea eta ohiko kontsumoarekin alderatzea.
- Tokiko produktuen abantailak identifikatzea (freskotasuna, ingurumenarekiko errespetua...).
- Elikagaien jatorria ezagutzea (baserria, lehen sektorea).
- Zentzumenen bidezko identifikazioa zehaztasun handiagoz egitea.
- Talde-lanean aritzea eta ideiak partekatzea.

Ezaugarriak: Azalpen landuagoak, galdera gidatuak, eta lehenengo ondorioak ateratzeko gaitasuna lantzea.

**3. zikloa:** Ziklo honetan pentsamendu kritikoa eta analisia lantzen dira.

- Km 0 eredia eta globalizatutako kontsumo eredia konparatzea.
- Kontsumo arduratsuaren inguruko hausnarketa egitea.
- Ekonomia zirkularraren oinarriko kontzeptuak ulertzea.
- Lehen sektorearen garrantzia baloratzea gizartean eta ingurunean.
- Zentzumenen bidezko jardueran hipotesiak egitea eta ondorioak ateratzea.

Ezaugarriak: Azalpen sakonagoak, eztabaida eta iritzi-trukea, eta ikasleen autonomia handiagoa jardueran.

## TAILERRAREN DESKRIBAPENA

### INFORMAZIO OROKORRA:

Tailer honen helburua ikasleek Km 0 produktuen kontzeptua ulertzea da, hau da, tokian bertan ekoizitako produktuak eta baserrietik zuzenean datozen elikagaiak ezagutzea. Horrez gain, kontsumo mota honen abantailak eta desabantailak aztertzen dira, ohiko merkataritzako produktuekin alderatuz.

Ikasleek lehen sektorearen garrantziaz jabetzen dira, elikagaien jatorria ezagutzen dute eta kontsumo arduratsuaren inguruan hausnarketa egiten dute. Era berean, sasoiko produktuen balioa eta ekonomia zirkularraren oinarriko printzipioak lantzen dira.

### BEHARREZKO MATERIALA:

- Arbela edo kartulina handia
- Antifazak (ikasleen ikusmena estaltzeko)
- Lau kutxa edo ontzi itxi
- Barruan sartzeko produktuak: frutak, barazkiak, arrautzak, esnea, eztria, Añanako gatza...
- Idazteko materiala (klariona edo errotulagailuak)

TAILERRA:

Tailerrak 90 minutuko iraupena du, eta hiru atal nagusitan banatzen da.

Lehenengo zatian, taldearekin batera azalpen orokor bat egiten da Km 0 produktuen inguruan: zer diren, non ekoizten diren (baserrian bertan), eta zein diren haien ezaugarriak. Ondoren, ikasleekin batera hausnarketa gidatu bat egiten da, produktu hauen kontsumoak dituen abantailak eta desabantailak aztertuz, ohiko supermerkatuetako produktuekin alderatuta.

Bigarren zatian, ikasleei arbela bat ematen zaie eta ezagutzen dituzten Km 0 produktuak idazteko eskatzen zaie. Ideiak partekatzen dira eta talde osoaren artean ezagutza aktibatzen da.

Hirugarren zatian, jarduera ludiko bat egiten da. Ikasleak lau taldetan banatzen dira eta elkarren artean lehiatzen dira. Antifazak jantzita, lau zentzumen erabiliz (usaimena, dastamena, ukimena eta entzumena), kutxen barruan dauden produktuak asmatu behar dituzte. Produktuak lehen sektorekoak dira (frutak, barazkiak, esnea, arrautzak, eztia, gatza...).

Jarduera honen bidez, ikasleek modu esperimentalean eta dibertigarrian ikasten dute, zentzumenak aktibatuz eta elikagaiekin harreman zuzena izanez.

Amaieran, egindako jardueraren balorazio txiki bat egiten da, ikasleei gehien gustatu zaiena eta ikasitakoa partekatzeko aukera emanez.

## 7.9. GAUBELA

GAUBELA	
<b>Arlo nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskera</li><li>• Ingurune</li><li>• Arte hezkuntza</li><li>• Heziketa fisikoa</li></ul>	<b>Jakintza nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Erritmoa eta adierazpen musikala</li><li>• Sormena eta adierazpena</li><li>• Talde-kohesioa</li></ul>
<b>Ikas egoeraren azalpena:</b> <p>Gaubelak eguneroko bizipenen adierazpena ahalbidetzen du musikaren, mugimenduaren eta talde-dinamikaren bidez, egonaldiko ikaskuntza emozionalki ixteko.</p>	
ARGUDIAKETA KURRIKULARRA	

Funtsezko kompetentziak	Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<b>Euskera</b>			
HKK KE KD KPSII HK	HKK1, HKK5 KE3 KD2, KD3 KPSII1, KPSII3 HK1, HK2, HK3	10	10.1 10.2
<b>Ingurune</b>			
HKK KE KD KPSII HK KAKK	HKK1, HKK2, HKK5 KE1, KE3 KD1, KD2, KD3 KPSII3 HK1, HK2, HK3 KAKK1, KAKK2	8	8.2.
HKK KE KPSII HK KAKK	HKK1, HKK5 KE1, KE2, KE3 KPSII1 HK1, HK2, HK3 KAKK1	9	9.1.
<b>Arte hezkuntza</b>			
KE STEM KD KPSII HK	KE3 STEM1 KD1 KPSII3 HK1	1	1.1

EK	EK2		
KAKK	KAKK1, KAKK2		
HKK	HKK1	3	3.1
KE	KE1		3.2.
KD	KD2		
KPSII	KPSII5		
HK	HK2		
EK	EK1		
KAKK	KAKK3, KAKK4		

### Heziketa fisikoa

KE	KE3	7	7.2.
KPSII	KPSII3, KPSII4, KPSII5		7.3.
HK	HK2, HK3		
EK	EK3		
KAKK	KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4		

### ZIKLOEN ARABERAKO EGOKITZAPENA

- 1. zikloa:** Taldean egotea eta abestiak ikasi. Jolasak ere.
- 2. zikloa:** Talde jardueretan parte hartzea eta emozioak kudeatzea. Talde lana jolasen bidez.
- 3. zikloa:** Taled kohesioa eta emozioen kontrola jaiaren bidez.

### TAILERRAREN DESKRIBAPENA

**INFORMAZIO OROKORRA:** Talde kohesioa sustatzeko oso baliagarria. Autonomia lantzeko Gaueko giroan segurtasuna sentituz. Irudimena eta jolasa lantzea Euskal kultura eta jolas tradizionalak ezagutzea. Errespetua eta elkar laguntza sustatzen da.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Baratzen dagoen materiala erabiltzen da.

**TAILERRA:** Gaubela egonaldiaren barruan egiten den gaueko jarduera berezia da. Helburua da talde kohesioa lantzea, emozioak kudeatzea, eta esperientzia positibo bat bizitzea, betiere adinaren arabera egokituta. 60 minutu inguruko iraupena du.

Jarduera hauek normalean afaldu ondoren egiten dira, eta hezitzaileen gainbegiratzearen pean garatzen dira.

OHARRA: 77/2023 Dekretuan ebaluazio irizpide ezberdinak agertzen dira zikloaren arabera. Memoria hau erreferentziazkoa izateko eta luzeegia ez izateko 2. ziklokoak hartu dira erreferentzia bezala. Nahi izanez gero ziklo zehatz bateko ebaluazio irizpideak jakitea mesedez Baratzeko arduradunari eskatu.

## 8. BALIABIDEAK

Baratze Baserri-Eskolak beharrezko giza, material eta azpiegitura baliabideak ditu Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako egonaldiak modu seguruan, inklusiboan eta kalitatez garatzeko.

### 8.1. Giza baliabideak

Proiektua heziketa, zaintza eta segurtasun ikuspegitik bermatzeko, honako profesional-taldea dago:

- Hezkuntza-taldea: irakasle eta hezitzaile espezializatuak, tailerrak eta jarduerak gidatzeko
- Sukaldeko langileak
- Garbiketa- eta mantentze-zerbitzua
- Kudeaketa eta administrazioa

Gure Irakasleek esperientzia dute ikaskuntza esperientzian, talde-dinamikan eta haurren zaintzan, eta etengabeko koordinazioa dute umeen irakasle laguntzaileekin.

### 8.2. Baliabide materialak

Baratze Baserri-Eskolak ingurune zabal eta anitza eskaintzen du, ikaskuntza-egoerak testuinguru errealetan garatzeko:

- Baserria eta pabilioiak, jarduera didaktikoetarako egokituak
- Korta eta animaliak
- Baratza eta negutegiak
- Tailer-espazioak (sukaldea, eskulangintza, zur lanketa...)
- Kanpoko naturguneak eta ibilbideak

- Astialdirako guneak
- Espazio guztiak ikasleen adinari egokituak daude eta segurtasun-irizpideak betetzen dituzte.

### **8.3. Osasuna eta segurtasuna**

Ikasleen ongizatea lehentasuna da. Horretarako:

- Lehen sorospeneko materiala eskuragarri dago
- Larrialdi-egoeretarako protokoloak ezarrita daude
- Osasun-zerbitzuetara iristeko aukera azkarra bermatuta dago
- Zaintza jarraitua egiten da eguneko une guztietan

## **9. ONDORIO PEDAGOGIKOAK ETA ITXIERA**

Baratze Baserri-Eskolako Lehen Hezkuntzako egonaldiak ikaskuntza-esperientzia integrala eskaintzen dute, curriculumarekin koherentea eta ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoarekin bat datorrena.

Proiektuak ikaskuntza

- Esanguratsua
- Bizipenetatik abiatua
- Konpetentziala
- Inklusiboa

sustatzen du, ingurune natural eta sozial pribilegiatu batean.

Egonaldia eskolako hezkuntza-proiektuaren osagarri pedagogiko sendoa da, ikasleen motibazioa, autonomia eta ingurumenarekiko konpromisoa indartzen dituena.